



EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO, ETIKA OINARRI HARTUTA

Arlo orokorra

1 >

Abenduan 70 urte bete zituen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, eta horren harira, Baketikek eta San Telmo Museoak hitzaldi eta mahai-inguru ziklo bat antolatu zuen; urtean zehar egindako hitzorduetan, arlo honetan lan egiten duten beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatu ditugu: SOS Arrazakeria, EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra, EHUko Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, Giza Eskubideen aldeko Argituz elkarteak, Saramago Fundazioa, CEAR Euskadi eta Amnistia Internazionale.

Ekainean inauguratu zen zikloa, Giza eskubideak, hiritartasuna eta aniztasuna izenburupean antolatu-tako Javier de Lucasen [hitzaldiarekin](#) eta Rafael Sainz de Rozas eta Maitane Arnosoren [mahai-inguruarekin](#). Irailaren 11an ekin zitzaion berriro, Pilar del Rio kazetari, Saramago Fundazioko Lehendakari eta Pertsonen Betebeharren Gutun Unibertsalaren sustatzailearen hitzaldiarekin, Pertsonen Betebeharren Gutun Unibertsala izenburua zeramana; hitzaldi ostean Arantxa Urretabizkaia idazleaz lagundurik solasaldi bat izan zen bertaratu zirenekin. ([irakurri hemen](#))

Irailaren 18an mahai inguruak izan zen Giza eskubideen defendatzaile diren bi emakumerekin: Danelly Estupiñan Valencia, Kolonbiako Komunitate Beltzak erakundeko kidea (Buenaventura, Valle del Cauca)

eta Nohemi Ester Perez Borjas, COFADEH (Hondurasko Atxilotu Desagertuen Familien Elkarte) elkar-
teko kidea (Tegucigalpa); CEAR Euskadiko Veronica Alvarez Garciak gidatu zuen solasaldia. ([irakurri
hemen](#))

Urriaren 16an, Amandine Fulchironen, aktibista feminista, politologa, gizarte-hezitzaile eta ikerlaria,
Guatemalako Actoras de cambio kolektibo feministako fundatzaileetakoak, Justizia berrasmatzen,
emakumeen gorputz, bizitza eta komunitateak izenburua zeraman hitzaldia eskaini zuen. Kasu honetan,
moderatzaile lanak EHUko Hegoa Institutuko Gloria Guzmanek egin zituen. ([irakurri hemen](#))

Urriaren 23an Josep Maria Tamarit Sumalla Zuzenbide penaleko katedraduna da Lleidako Unibertsita-
tean eta Kataluniako Unibertsitat Obertan, biktimologian, justizia erreparatzailean, justizia trantsizio-
lean eta zigor penaletan aditua izan zen gure artean; Estatuaren etsaien matxinada, goi-mailako traizioa
eta erreproso penala izenburu zuen hitzaldia eskaini zuen. Zuzenbide Penalean Katedradun eta EHUko
Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendari Jon Mirena Landa izan zen moderatzailea.
([irakurri hemen](#))

Azaroaren 20an Espainiako Amnistia Internazionalerako Zuzendari Alboko den Eva Suarez-Llanos izan
zen San Telmon, 70 urteren ondoren inork ezin ditu ziurtzat hartu bere giza eskubideak: demonizazio
politikei aurre egiteko errezetak hitzaldia eskaintzen. Hitzordu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko
Bizikidetzeta eta Giza eskubideen zuzendari Maribel Vaquero izan zen hizlariari laguntzen. ([irakurri hemen](#))

Abenduaren 11n, 2018ko hitzaldi zikloa itxi genuen Carlos Martin Beristainen hitzaldiarekin; martin Be-
ristain mediku psikologoa da, giza eskubide urraketen biktimen artatzean aditua. 30 urtetik gorako lan-
esperientzia du Osasun Mentalaren eta Giza Eskubideen programak, giza eskubideen aldeko taldeekin
eta baztertutako edo errefuxiatutako komunitateekin, torturetatik bizirik atera direnekin, desagertuen
familiekin edo bestelako Giza Eskubide urraketa larriak jasan dituztenekin. Hitzaldiaren izenburua Giza
eskubide bortxaketa larrien osteko justiziarako eta bizikidetzarako bideak izan zen. ([ikus
hemen](#))

2 > Baketik hitzaldi horietako bakoitzaren kronikak idatzi ditu, eta, interesa duen edonork, horien bideo-
ekin batera ikusi eta irakur ditzake gure blogean ([ikus
hemen](#))

Bake eta bizikidetzeta arloa

3 > Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetzeta Lantzen programarekin Gipuzkoako 11 herritan garatzen ari
garen bake eta bizikidetzeta proiektuen baitan, hainbat ekintza antolatu ditugu udazkenean zehar, memo-
ria eta bizikidetzaren gaiak lantzeko.

4 > Elgoibarren, udaberriaren lehen zatia izan zuten jardunaldiak osatuz, herriko Ongarri Zineklubarekin bi
ekintza antolatu ziren udazkenean. Zehazki, bi dokumental eskaini ziren: Lesa Humanitat, urriaren 18an
eta InDialogue, urriaren 25ean. Azken honetan, gainera, dokumentalaren zuzendari Xuban Intxaustik
parte hartu zuen.

5 > Urnietan, urriaren 30ean "S(u/a)minetik bakera" ("De la ira / amargura a la paz") programatu zen, ikus-
entzunezko obra eszenikoa. Azaroaren 6an Bizimiñak antzezlan eskaini zuen, antzerkia, musika eta
pintura zuzenean eskaintzen dituen obra. Azaroaren 13an mahai inguru bat antolatu zen, 'Nola landu
biktimen errekonozimendua maila lokalean' izenburupean; Kriminologiako Euskal Institutuko kide diren
Laura Pego eta Gema Varonaren parte-hartzearekin. Jardunaldiak azaroaren 20an itxi ziren, 'Bizikidetzeta
gure esku ere badago' izenburu zuen World Cafe batekin.

6 > Legazpin, azaroaren 20an "S(u/a)minetik bakera" obraren saio bat antolatu zen, eta azaroaren 19an mahai
inguru bat, Laura Pego eta Gema Varonarekin, biktimen memoria eta udal-aitorpenaren inguruan.

7 > Sorluzen, Glen Cree esperientziaren inguruko zine-forum bat antolatu zen azaroaren 13an; dokumentala
ikus ostean, solasaldia izan zen, bertan parte hartu zuten bi pertsonekin: Patxi Elola eta Jorge Perez.
Beasainen "S(u/a)minetik bakera" eskaini zen abenduaren 5ean, eta Bizimiñak abenduaren 11n.

8 > Andoainen, Argituzek egindako 'Memoria partekatu baterantz...' txostena aurkeztu zen abenduaren
12an. ([Hemen](#) deskargatu dezakezu dokumentua). Ekitaldian, txostenean parte hartu duten bost lagu-
nen testigantzarekin osatutako bideoa proiektatu zen ([ikus bideoa](#)) eta Jon Mirena Landak hitzaldia
eskaini zuen.

Elkartasun arloa: Izeba Proiektua

9 > Urtearen bigarren seihilekoan, Izeba Proiektuak modu egonkorrean egin du gora, aurreko epealdietan
bezala. Zehazki, adin-txikiko pertsona tutelatuen eta eta pertsona edo familia boluntarioen atreko ha-
maika harreman berri ezarri dira. 2018a Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean dauden adin txikiko
pertsona tutelatuen eta familia edo pertsona boluntarioen arteko 53 harremanek amaitu dugu. Aipaga-
rria da ere, 77 gaztek harremana mantentzen dutela euren Izeba familiarekin, Aldundiaren babespean
jada ez dauden arren. Hala, Izeba familia handia 130 harremanetan da, gaur egun.

10 > Seihileko honetan, 20 pertsona edo familia berrik egin dute bat Izeba Proiektuarekin. Aipatu beharra
dago, azaroan, sentsibilizazio kanpaina bat egin zuela Izeba Proiektuak Oarsoaldean, programa ezagu-
tarazi eta inguruko familia edo pertsoneri bertan parte-hartzeko gonbita eginez. Kanpaina honen gai-
nean oso balorazio ona egiten dugu, inguruan babespean dauden eta programan parte hartzeko inte-
resa duten adin-txikiko pertsoneri laguntzeko prest agertu diren boluntario kopuru handia lortu baita.

Formakuntza arloa

11 > Seihileko honetan Bizikidetzeta pedagogian oinarritutako hiru ikastaro eskaini dira: horietako bat Gi-
puzkoako herri bateko ordezkari politikoei zuzenduta, eta beste bi Nafarroako bi ikastetxeetako gura-
soei. Horrez gain, Bihotzetik proposamenaren inguruko tailer bat dinamizatu da unibertsitateko ikasleei
zuzenduta, Deustuko Unibertsitatean.

12 > Gainera, talde pribatu batek hala eskatuta, gatazken konponbiderako hainbat ikastaro eskaini dira.
Lehen uztailan egin zen Oporton, Portugalen; bertan alderdi kontzertual eta teorikoak landu ziren
gehienbat, material praktikoaz gain. Bigarren saioa, abenduan egin zen, Avilan, eta han gaian sakondu
zen, kasu praktikoak landu eta aztertzearekin batera.

Hezkuntza arloa

13 > Seihileko honetan Baketik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuarekin eta Giza Eskubideen,
Bizikidetzaren eta Kooperazioaren Idazkaritza Orokorrarekin elkarlanean jarraitu du, biktima hezitzailean
testigantzen Adi-adian ekimenean parte hartuz. Biktimen egindako beste bi saiotan aritu gara laguntzen
eta aurten 1100 ikasle ingururenagana iritsi gara.

14 > Antzerki Forumaren proiektuari dagokionez, 49 saio eskaini dira guztira, 1.800 ikaslerengana iritsiz. Ho-
rietatik 15 saio eskola jazarpena saihesteko Antzerki Forumarenak izan dira, "Sararen istorioa" antzezlana
oinarritutakoa, bai Nafarroako ikastetxeetan (Nafarroako Gobernuak Bake eta Bizikidetzeta Sailare-
kin elkarlanean), bai eta Gipuzkoan ere, udal mailako proiektuen baitako hezkuntza ataletan.

Gainera, "Zure azalean" antzezlanean eta Antzerki Forumetik eratorritako metodologia propio ba-
tean oinarritutako 15 saio egin dira aniztasun kulturala eta familiarra sustatzeko. Horrez gain, "Eta hik
zer?" lanarekin bizikidetzeta sustatzeko hiru antzerki-forum saio egin dira; eta azkenik, bide-segurtasunari
buruzko 16 antzerki-forum saio egin dira.

Bitartekaritza arloa

15 > Baketiken bitartekaritza zerbitzua zabalik dago bitartekaritzaren metodologiaren bitartez liskarren bat
konpondu nahi duen edonorentzat edo edozein talderentzat. Kasu gehiago lantzen gabiltza. Azken
seihilekoan udal-mailako bitartekaritza prozesu bat amaitu du Baketik, gutxienekoen akordio bat er-
dietsita.

Zine zerbitzua

16 >

Baketikek hamar film berri gehitu dizkio hobeto bizi, elkarbizi eta hezteko zinemarako Bideotekari, eta haien gida didaktikoak ere egin ditu. Zerbitzu honetako pelikulak Baketiken egoitzan daude, nahi dute pertsona, talde edo zentro doako maileguan hartzeko. Honakoak dira gehitutako izenburuak:

- El viaje de Chihiro (Hayao Miyazaki, 2001)
- Handia (Jon Garaño & Aitor Arregi, 2017)
- Verano 1993 (Carla Simón, 2017)
- Un día perfecto (Fernando León de Aranoa, 2015)
- Bar bahar: entre dos mundos (Maysaloun Hamoud, 2016)
- La vida de calabacín (Claude Barras, 2016)
- Hannah Arendt (Margarethe von Trotta, 2012)
- Gabrielle (Louise Archambault, 2013)
- Un poco de chocolate / Txokolate apur bat (Aitzol Aramaio, 2008)
- Ehun metro (Alfonso Ungría, 1986)

17 >

Urtero bezala, bestalde Baketiken Bideoklub zerbitzutik hobeto bizi eta elkarbizitzeko aukeratutako hamar film bidali zaizkie bazkideei. Aurten 60€-koa izan den kuota baten truke, edozein pertsona, ikas- te- te edo erakundek film sorta bat eta horien gida didaktikoak jasotzen ditu urte amaieran, Hau izan da 2018ko aukeraketa:

- Profesor Lazhar (Philippe Falardeau, 2011)
- Blade Runner (Ridley Scott, 1982)
- Handia (Jon Garaño & Aitor Arregi, 2017)
- Her (Spike Jonze, 2013)
- Nader y Simin, una separacion (Asghar Farhadi, 2011)
- Patch Adams (Tom Shadyac, 1998)
- Mar adentro (Alejandro Amenábar, 2004)
- Frozen: el reino del hielo (Disney, 2013)
- Verano 1993 (Carla Simón, 2017)
- Un día perfecto (Fernando León de Aranoa, 2015)